

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Kultur Etxea Tokiko Erakunde Autonomoa**

**Getxoko udalerriko kultur elkarteei 2022. urtean urteko dirulaguntzak emateko deialdia arautzen duten berriazko oinarriak.**

**ESPARRU ARAUEMAILEA**

Oinarri espezifiko hauek eman dira 2004ko abenduaren 30ean Getxoko Udalaren Osoko Bilkurak behin betiko onetsi zuen Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Arautzaileak xedatzen duenari begira, eta bai eta 2003ko azaroaren 17ko 38 Legeari begira, Diru-laguntzen gaineko Lege Orokorra eta bere Erreglamendua (Errege Dekretua 887/2006 zenbakiduna uztailaren 21ekoa) hain zuzen ere.

**FINANTZAKETA**

Deialdi honetako xedea betetzeko, finantzaketa aurrekontu-kreditu baten kontura egingo da. Aurrekontu-kreditu horren gehieneko kantitatea 133.750,00 euro izango da, eta 003/3340/48100 aurrekontu partidaren kontura izango da.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publikoetatik edo pribatuetatik jaso ahal diren diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin zein baliabideekin, betiere Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa betetzen bada.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Getxoko Udaleko beste sail batzuek finantzaturako edo finantza ditzaketan jarduerak.

Horregatik azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorrarekin eta aipatu legearen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Ordenantza Orokorra, deialdi hau argitaratzen da 2010an laguntzak Getxoko Udalerriko Kultur Elkarteei.

**ARAUDIA****1. Helburua**

Deialdi honen helburu nagusia da, Getxoko Udalerriko Kultur Elkarteei ohiko jarduerak sortutako gastuetara bideratuko dira, hau da, alde batetik erakunde eskatzailearen funtzionamendu arruntaren 2022ko programako jarduerak lagunduko dira eta, bestetik, erakunde eskatzailearen gastu arruntak lagunduko dira, hala nola lokalen alokairua, elektrizitatea, telefonia, eta abar.

**2. Erakunde hartzaileak**

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko honako baldintza hauek bete behar dira: Getxoko udalerrian helbide soziala edukitzea edo Getxoko udalerrian egotea, Elkarte baten izaera edukitzea eta kultur jarduera bat garatu nahi izatea, betiere deialdi honetako irizpideen arabera eta Diru-laguntzen Emakida Arautzen duen Udal Ordenantza 11. artikulua arabera, Getxoko udalerriarantzako interesagarria bada eta Getxoko udalak edo bere Erakunde Autonomoek garatutako jarduera kulturalak hobetzen, osatzen edo ordezkatzeko baditu.

Elkarte Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan eta Getxoko Udal Erakundearen Erregistroan izena emanda egon beharko da.

**3. Diru-laguntza mota**

Ohiko edo urtebeteko diru-laguntzak, erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu programako jarduerak lagundu eta sustatzeko. Jarduera horiek 2022. urtean garatuko dira.



#### **4. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak telematikoki, Getxoko Administrazio Elektronikoko Bulegoan [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean, Getxoko Herritarren Arretarako Bulegoetan aurkeztu behar dira; baita 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 16.4 artikuluan aipatzen dituen subjektuetako edozeinen gainarako erregistro elektronikoen ere aurkeztu ahal dira.

Informazioa eta eskabideen ereduak eskuragarri egongo dira ere Udaleko web orrian ([www.getxo.net](http://www.getxo.net)).

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen eta hilabeteko epean amaituko da. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitarapena diru-laguntzen datu basearen biartez egingo da.

Eskaerak, derrigorrez oinarri hauen II. Eranskinen eskabide arautua betez aurkeztu behar da.

Eskabidearekin batera, oinarri hauetan Eranskin moduan prestatutako inprimakiak aurkeztu behar dira, behar den bezala beteak, bai eta 5. atalean adierazitako dokumentazio guztia ere.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, eskabideak atzera botako dira; kasu horretan, izapidetu gabe arxivatuta geratuko lirateke.

#### **5. Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa**

- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- Erakundearen IFKren fotokopia.
- Erakunde eskatzaileak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria, beti ere aurreko urtean diru laguntzarik eskatu ez bada.
- 2022. urtean garatuko diren jarduerak zehazten dituen proiektua.
- 2022. urterako kalkulaturako aurrekontua (IV. Eranskina).

Lurralde historikoko Foru-Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatuko da, interesdunak espresuki kontrakoa adierazten ez badu eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.

Kultur etxeak, egokitzen jotzen duenean, eskatzaileari dokumentazio gehiago eskatu ahal dio aurkeztutako proiektuaren balorazioa egiteko. Kasu horretan, dokumentazio horren aurkezpena derrigorrezkoa izango da eskaera aurrera eramateko.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Esku-bide Digitalak Bermatzeko eta 2016/679 (EB) Erregelamendua eta datu pertsonalak babesteko dena, ezarritakoa betez, erakunde eskatzaileei jakinarazten zaie utzitako datuak eta dokumentazioa honako eduki hauek araututako deialdiaren urteko diru-laguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

#### **6. Eskabideak bastertzea**

Ez dira kontuan hartuko epe mugatik kanpoko eskariak ezta azalpen-memoriarik eta/edo aurretik Getxoko Udalatik edota bere Erakundeetatik jasotako diru-laguntzen ziurtagiririk aurkeztu gabe duten erakundeek egindako eskabideak.

#### **7. Eskabideak ostugabeak edo akastunak**

Aurkeztu den eskabidea edo eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, 10 lan eguneko epea utziko zaio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko; epe hori zuzenketa egin behar denaren jakinarazpena egin eta biharamunetik hasiko da. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

#### **8. Norgehiagoka**

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagokaren erregimenari jarraituz esleituko dira, alegia, aurkeztutako eskabideak balioztatu egingo dira eta, ondoren, lehentasuna



erabakiko da, horretarako deialdi honetako balorazio-irizpideei eta Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Udal Ordenantzako 11. artikuluari jarraituko zaiolarik.

Edonola ere, dirulaguntza ematea ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egoteari baldintzatuta geratuko da.

### **9. Balorazioa egiteko irizpideak**

Diru-laguntza zein proiekturi emango zaien erabakitzerakoan, eta Udal Ordenantzaren arabera, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, oro har:

- Proiektuaren kalitatea eta interesa ikuspuntu kulturaletik, Getxo udalerriri lotuta.
- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.
- Euskara.
- Berdintasuna.
- Kulturartekotasuna eta integrazio soziokulturala.

Irizpide hauen balorazio zehatza I. Eranskinetako taularen arabera egingo da.

### **10. Izapidetzea eta ebazpena**

Oinarri espezifiko hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Saileko Jaiei Saila izango da.

Ebazpena emateko eskumena Tokiko Gobernu Batzordeak izango du, aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoreak proposatuta.

Elkargokidea den organoak, organo instruktorearen bidez, emateko proposamena egingo dio diru-laguntza emango duen organoari; hau da, Presidenteari, Diru-laguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean esaten denaren arabera.

Organo Kolegiatua honako izando da:

#### *Titularrak*

- Lehendakaria:
  - Kultur Etxeko Presidentea
- Kideak:
  - Getxoko Kultur Etxeko Pertsonal eta administrazio Burua
  - Getxoko Kultur Etxeko Zuzendaria
  - Getxo Kirolak Erakunde Autonomoaren Presidentea
  - Komunikazioa, Gardentasuna eta Partaidetza Zerbitzuaren Zinegotzi arduraduna
- Idazkaria:
  - Getxoko Kultur Etxeko administraria

#### *Ordezkoak*

- Lehendakaria:
  - Kontu-hartzaitza Orokorraren Arloaren Zinegotzi arduraduna
- Kideak:
  - Administrazio Orokorreko Teknikaria
  - Gela eta programen arduraduna
  - Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloaren zinegotzi arduraduna
  - Tokiko Ekonomia Sustapenaren Arloaren Zinegotzi arduraduna
- Idazkaria:
  - Getxoko Kultur Etxeko administraria.

Bi hilabete utziko dira, gehienez, ebazpena emateko, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik hasita. Epea amaitu ondoren, diru-laguntzaren eskabidea ezetsi egingo da, berariazko ebazpena eman ezean, Administrazio Publikoen Araubide



Juridikoari eta Administrazioa Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1ekoa 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoak ondorioak izan ditzan.

Ematen den ebazpenak administrazio-bidea agortzen du eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazio-bidea agortu denaren jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabeteko epean. Hala ere administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabete bateko epean aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean.

Deialdi honetan araututako laguntzak pertsona onuradunei emateko eta, hala bada-gokio, ordaintzeko baldintza izango da, Getxoko udalak ematen dituen izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan horiek itzultzeko edo zehatzeko edozein prozedura izapidetzen ari bada oraindik, izapidetzeak amaituta egotea.

Diru-laguntza jaso ahal izateko udaleko zerga guztiak ordainduta izan behar dira. Halaber, ezin da bestelako betebeharrak ekonomikorik bete gabe izan. Ardura hori udalak hartuko du bere gain.

Diru-laguntzen ebazpena/k Diru laguntzen base datuan argitaratuko dira.

### **11. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua**

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko zein pribatuko xede berdinarekin emandako beste edozein diru-laguntzekin. Ez da gain-finantzaketa gertatutako, hau da, diruz lagundutako guztizko kopuruak ez du gaindituko jardueraren guztizko kostua.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Getxoko Udaleko beste sail batzuek finantzatutako edo finantza ditzaketan jarduerak.

Eman beharreko zenbatekoari dagokionez, ardatza eskatutako diru kopurua izango da, eta kopuru horri lortutako puntuen portzentaia aplikatuko zaio.

Egindako eskaerak, diru laguntzaren aurreikusitako kreditua gaitutako balituzte, honako modu honetan erregularizatuko da:

Diru laguntzaren guztizko zenbatekoa izandako erabilgarri osoa zatitu egingo da behin-behineko esleipenagatik; eta emaitza koefiziente zuzentzailea izango da eta behin-behineko esleipenari aplikatuko zaio. Hau da, behin-behinean 140.000,00 euro esleitu badira, koefiziente murriztailea 0,9286 izango litzateke. Beraz, behin-behinean 1.000,00 euro esleitu badira, koefizientea aplikatzearen ondoriozko behin betiko emaitza 928,57 euro izango litzateke.

Soberako kredituaren kasuan, proportzionalki banatuko da kreditu erabilgarria agortu arte. Eskatutakoaren eta behin-behinean lortutakoaren arteko aldea hartuko da erreferentziatzat.

Diru-laguntzak pilotzearen ondorioz gain-finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Kultur Etxeak emandako kantitatea itzuli beharko du, horrek finantzatutako zenbateko osoari dagokionez eman duen zenbatekoaren proportzioan.

Diru-laguntza alde aurretik ordainduko da, onuradunak egin behar duen justifikazioa baino lehen, diru-laguntza ezinbestekoa kontsideratzen delako jarduera garatzeko.

### **12. Erakunde onadunaren betebeharrak**

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua aurrera eraman beharko du deialdi honetan adierazitako xedapenak eta diru-laguntzen Emakida Arauzten duen Udal Ordenantzan, hain zuzen 15.artikuluan, adierazitako xedapenak bete beharko ditu.

Nolanahi ere, emakidaren ebazpena egokituta, onuradunak haren edukia aldatzea eskatu ahal izango du, eta baimendu ahal izango da, baldin eta besteen eskubideak kaltetzen ez badira. Eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

Hain zuzen, erakunde eskatzaileak, diru-laguntzaren onuraduna den kasuan, nahitaez barne hartu beharko ditu sustapen-elementuetan eta diruz lagundutako jardueraren



horma-irudi, testu edo agirietan, Getxoko udalaren babesla lortu dela eta, gainera, EAE-ko bi hizkuntza ofizialetan landu beharko ditu horma-irudiak, testuak eta agiriak. Edozein modutan, Getxoko udalak horma-irudien inguruan duen udal-araudia bete beharko da.

### 13. Diru-laguntzaren justifikazioa

a) Jasotako dirulaguntzari emandako erabilera justifikatzea da onuradunek duten beste betebeharrerako bat.

b) Aipatuta bezala, horiek justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

— Gauzatutako jardueren memoria zehatza. Bertan, aurreko urteetako jardueretik aldatu diren alderdiak edo berriak direnak adieraziko dira. Diruz lagundutako jarduera bete dela konprobatzeko nahikoa izan behar du, aurkeztutako proiektua eta gastuen memoria kontuan harturik.

— Jarduerak sortutako sarrera eta gastu guztien balantzea. (III. Eranskina). Sarre-zen zerrendan edozein kontzeptuagatik lortutako sarrerak zehaztuko dira, hala nola: bazkideen kuotak; edozein erakundetatik, publikoak nahiz pribatuak izan, eskuratutako dirulaguntzak edo babesleak; sarreraren salmentagatik edo jendeak emandako borondatea dela eta bildutako zenbatekoak; loteriak edo zozketak; txosnatan eta abar edariak edo jakiak salduz ateratakoa; publizitatea, materialaren (eranskailuak, pinak eta abar), salmentatik ateratakoa eta abar.

— 60.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen kasuan, sortutako gastu guztien jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu. Gastuak frogatzeko, fakturak edo merkataritzako trafiko frogabaliokidea edo eraginkortasuna administratiboa duten agiriak aurkeztuko dira. Pertsona onuraduna jatorrizkoen itzulketa nahi izango balu, kopiak aurkeztuko ditu konpultsatzeko eta aurkeztutako jatorrizko frogagiriari zigilu bana jarriko zaie, eta bertan zehaztuko da zein diru-laguntza frogatzeko aurkeztu diren.

60.000 euro gutxiagoko zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen kasuan, V eta Vbis eranskinak aipatzen den gastuen eta inbertsioen zerrenda egongo da sailkatuta diruz- lagundutako jardueraren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituen. Zerrendan bertan, hornitzailea eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Pertsona onuradunak, gutxienez, lau urtez kontserbatutako dituzte fakturak edo merkataritzako trafiko frogabaliokidea edo eraginkortasuna administratiboa duten agiriak, baita ordainketa frogagiriak ere. Administrazioak laginketa-tekniken bidez egiaztatu ahal izango du 60.000 eurotik beherako diru-laguntzaren ordainketa-fakturen edo egiaztagirien %25, diru-laguntza behar bezala aplikatu izanaren zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko.

— Diruz lagundutako programarekin eta/edo jarduerarekin harreman zuzena duten gastuak —catering eta ordezkariak, bazkariak eta antzekoak— ez dira justifikazio moduan erabiliko, baldin eta programaren kostuaren % 10 gainditzen badute.

Langileen gastuak barne hartzen dituzten diru-laguntzen kasuan, dagozkien nominak edo soldaten ordainagiriak aurkeztu beharko dira, datu hauekin: izena eta bi abizenak, NAN zenbakia, hilabetea, zenbateko gordina, dagozkion beherapenak eta zenbateko likidua; baita Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak ere. Halaber, nominen ordainagiriak aurkeztu beharko dira, Gizarte Segurantzako kotizazioen agiriak eta zerga-kopuruen ordainagiriak.

Horretarako, hautatutako onuradunei aipatutako dokumentazioa bidaltzeko eskatzeko aukera izango du administrazioak.

— Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratutako liburuxka, horma-irudi, liburu, bideo, CD-Rom eta abarren ale bana.

c) Justifikatu beharreko zenbatekoa: sortutako gastuak den-denak, %100a hain zuzen, justifikatu beharra dago, ez bakarrik Getxoko Kultura Etxeak diru-laguntzatan



emandako kopurua; diru-laguntzen 38/2003 lege orokorrak, azaroaren 17koak halaxe xedatua dauka.

d) Egiaztagiriak aurkezteko epe-muga 2023ko urtarrilaren 31 izango da.

e) Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar baditu, egiaztagiriak fotokopiekin batera aurkeztuko dira, horiek egiaztatu eta jatorrizkoak zigitatu ondoren onuradunari itzultzeko.

f) Aurkeztutako egiaztagiri guztiek dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan —urte naturalean— datatuta egon behar dute dirulaguntza emango bazaie.

g) Kultur Etxeak eskumena du erakunde onuradunaren finantza-egoera egiaztatze-ko beharrezko irizitako jarduera guztiak egikaritzeko, barneko nahiz kanpoko auditoriak barne.

#### **14. Diru-laguntza itzultzea**

Jarraian adierazitako kasuak gertatzean, jasotako diru-laguntza Udalaren Diru-kutxara itzuliko da, diru-zaintza ordaintzen denetik berau itzultzeko erabakia hartzen den egunera arte sortutako berandutzazko interesak barne:

- Emandako zenbatekoa berau eskatu zen helburu zehatzera ez bideratzea.
- Diru-laguntza eskuratu izana, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete gabe.
- Deialdi honetan eta aipatutako Udal Ordenantzan adierazitakoa betez, hartutako betebeharrak urratzea, onuradunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik.
- Sobera finantzatzea, jasotako diru-laguntzaren zenbatekoaren eta jarduera egikaritzean sortu diren egiazko gastuen arteko aldea ikusita.
- Beste erakunde batzuk, publikoak edo pribatuak, emandako diru-laguntzak edo laguntzak pilatzeagatik gain-finantzaketa egotea. Kasu horretan, onuradunak Kultur Etxeak emandako kantitatea itzuli beharko du, horrek finantzatutako zenbateko osoari dagokionez eman duen zenbatekoaren proportzioan.
- Aurreko puntuan adierazi den egiaztatu beharra ez betetzea. Gastuaren justifikazio partziala egiten bada, justifikatu gabe geratu den gastuaren adinako kopurua itzuli beharko da.

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, osorik edo zati batean, proportzionaltasunaren edo egitatearen printzipioari jarraituko zaio eta, horretarako, kasu bakoitzaren ezauzgarriak hartu dira kontuan.

Diru-laguntza itzultzeko ebazpena diru-laguntza emateko ebazpena eman zuen organo berak eman beharko du.

Dirua itzultzeko espedienteak 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, IV. Tituluan ezarritako arauak beteko ditu, eta, 15 eguneko epean interesdunari entzunaldi-izapidea emango zaio.

Halaber, ondorengoak kontuan izango dira: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko III. eta IV. Tituluetan ezarritakoa, diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erreglamendua onartzen duena, eta Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorreko II. Titulua, azaroren 17koa.

#### **15. Zehapen-araubidea**

Zehapen eta arau-hausteen araubidea 38/2003 Legearen, azaroaren 17koa eta diru-laguntzei buruzkoa, IV. Tituluan eta 2/1998 Legean, otsailaren 20koa eta Administrazio Publikoaren Zehapen Ahalmenari buruzkoa, ezarritakoa izango da.

Eranskinak Getxoko Udaletxeko webgunean publikatuak.

Getxon, 2022ko martxoaren 23an.—Getxoko Kultur Etxeko Presidentea, Irantzu Uriarte Gómez